



Oñati letrarik letra (II)

PALACIOS ETA LEZETA

Frantzisko Antonio izan zen, beharbada, XVIII. mendeko oñatiarrik ospetsuena. Kale Zaharrean jaio zen 1727ko urriaren 4an, orain dela urte batzuarate Illarramendineko okindegia zegoen etxe berean, seguru asko. Hautzaroa jaioterrian igaro ondoren, Madrilera eraman zuten amaren aldetik zituen senideengana, hiri hazi batean egon ohi den goi-mailako jendearen ohiturak ikasteko-edo. Gure mutikoa, ordea, ez zegoen nonbait horretarako eta sorterrira bueltatu zen, Arantzazuko frantziskotarren kide izateko gogoia sartu baitzitzaion.

Eta ez zen, ez, nolana hiko fraidea izan. Hainbat urtetan aritu zen irakasletzan Tolosan eta Arantzazun, eta gaixoaldi larri batekin, bere ustez, Ama Birjinari esker onik irten eta gero, Arantzazuko Amarenganako debozioa indartu egin zitzaion, bizitza espiritualaren barrunbe sakonetan areago murgildu zelarik. Handik laster erabaki latza hartu zuen: ordura arteko bizimoduari utzi eta Zarauzko Misiolarien Mintegian sartzeko eskabidea egin zuen.

Aita Palacios 1762an joan zen Zarautzera. Harrezkero, berrogei urte baino gehiagotan, ia Euskal Herria osoan eta inguruetan jardun zuen misiolaritzan, bere garaiko sermolaririk famatuenetakoa izatera iritsiz. Euskaraz nahiz erdaraz hizlari trebea omen zen. Hala ere, idatzi egiten zituen bere sermoiak. Zarauzko frantziskotarren komentuan dozena bat liburu gordetzen dira argitaragebako eskuizkributan, Palaciosen euskarazko eta erdarazko sermoiez osaturik. Dena dela, hiru liburu kaleratu zituen erdaraz, eta bere adiskide Aita Antonio **Añibarro** bizkaitarrak horietako birekin euskarazko **Lore-Sorta Espirituala eta Propositu Santuak** moldatu zuen.

Orduko misiolari guztien antzera, pentsamolde guztiz estua zeukan gure Aita Palaciosok. Eta, batetik bestera egi o ibiltzea egokitu zitzaiolako, **Padre Caminos** ezizena jarri bazioten ere, beti eutsi zion Oñati eta Arantzazurekiko harremanari.

ROBIC ETA RONDEAUX

oso etxeokoa genituen oñatiarrok orain dela berrogeita hamar urte pasatxo Orduan bizikleta-lasterketa bikainak antolatzen ziren gure herrian: gerra aurrean, 1935ean, hasi zen **Arantzazuko Igoera** gogorra; gerra ostelaztean berriz, 1947an, **Bidaurretako Kilo-metroa** eta **Ziklo-krosa**. Azken hau, gainera, nazioarteko proba entzutetsu bihurtu zen 1949tik aurrera. Atzerriko txirrindularien artean ez dakit aipatuko bi frantses horien adina besterik estimatzen ote genuen Oñatin.



Jean Robic

Jean Robic bretoia, Arratiako txekorra bezala, txikerra baina gogorra zen. Terreno guztietan moldatzen zen ondo. Bigarren Mundu Gerraren ondorengo lehen Tourra 1947an irabazi arren, bere palmaresik distiratsuen, akaso, ziklo-krosean lortu zuen. Espezialitate honetan Nazioarteko Kriterium-ak eskuratu zuen 1947an eta Munduko I. Txapelketa ofiziala 1950ean.



Roger Rondeaux

Roger Rondeaux ez zen Robic baino askoz handiagoa, baina bai hura bezain saiata eta lehiatsua. Nahiz eta beste txirrindularitza-arlo batzuetan poliki jardun, ziklo-krosean nabarmendu zen hau ere. Dozenerdik bat urtetan Robic eta bera nagusitu ziren bizikleta gaineko eta oinezko kirol-mota zail horretan. Rondeaux 1948 eta 1949ko Nazioarteko Kriterium-ean irabazle izan zen, eta 1951, 1952 eta 1953ko Mundu Txapelketak ere berak erdietsi zituen.

Oñatin ere ez zituzten marka makalak jarri. Robic-ek Arantzazuko XII. eta XIII. igoerak irabazi zituen 1949 eta 1950ean. Urte honetan, gainera, proba horretako errekorra ezarri zuen. Oñatin 1950ean korritutako Nazioarteko Ziklo-kros proba ere beretzat izan zen. Rondeaux-k, aldiz, 1952an eskuratu zuen garaipena Arantzazuko XV. igoeran eta 1949 nahiz 1953ko ziklo-krosean. Azken hau, jakina denez, IV. Mundu Txapelketa izan zen.

JERARDO ELORTZA